



S O R T U , A N T Z E R A T U , K O P I A T U , P L A G I A T U

DE LIBRO

IKERKETA BAT

IKASLEEN GIDA PRAKTIKOA

HAMABI ETA HAMAZORTZI
URTE BITARTEKOENTZAT

Nola egin lan original bat,
ongi dokumentatua, eta egile
eskubideak errespetatuko dituen

CEDROren heziketa-programa bat

Definizioa, diseinua eta garapena

NETURITY

Espezialistak

Jabetza intelektuala

CEDRO (José Pindadoren lankidetzarekin)

Dokumentazio aholkularitza


Natalia Bernabeu eta M.^a Jesús Illescas

Material inprimatuaren eta identitatearen maketazioa eta diseinua

Pierre Comunica

Itzulpena

Eskarne Mujika Gallastegi



Ikertu urratsez urrats

- Kontratua** 1 Ikertzen animatzen zara?
- Ikergaia** 2 Ba al duzu ikergai on bat?
- Plangintza** 3 Antolatu lana
- Ideiak** 4 Ordenatu zure ideiak diagrama batean
- Iturriak** 5 Non bilatu informazioa?
- Dokumentuak** 6 Zeintzuk izan daitezke interesgarriak?
- Informazioa** 7 Hautatu garrantzia duena
- Gidoia** 8 Ganorazko gidoi bat egin
- Originala izan** 9 Nola egin ez kopiatzeko eta ez plagiatzeko
- Txostena** 10 Nola egin ikerketa-txosten on bat
- Interneten** 11 Argitaratu zure lana esdelibro.es web orrian

de libro-koa al zara?

Urratsa:

I

Kontratua

Zer egin behar duzu?

Zer egin behar duzu?

Ikerlan bat ongi burutzeko konpromisoa hartu.

Aholku batzuk

ZURE GUSTUAK. Atsegin zaizkizun gaietan pentsatu, haiei ekiteko dituzun ahalmenetan, eskain diezaiekezun denboran...

ARGI IZAN DENA. Jakin behar duzu ikerketa baten aldiak zeintzuk diren, eta une oro zeinetan zauden.

GOGOAN HARTU ©. Prozesu guztian zehar aintzat hartu autoreek beren obrekiko dituzten eskubideak (aipatu haien izenak, bibliografia bat egin, irudi edo ilustrazioen egileen izenak adierazi...).

«*Talentua zerbait ohikoa da. Buruargitasuna ez da gaitasun urria, baizik eta jarraitutasuna*»



Doris Lessing
(1919an jaioa).
Britainiar idazlea

Gogoan hartu ©

Egile oro da bere lanaren erantzule.

Urratsa:

2

Ba al duzu ikergai on bat?

Zer egin behar duzu?

Zure ikerlanaren gaia aukeratu.

Aholku batzuk

ZEURE INTERESETATIK ABIATU. Seguru gai jakin bati buruz jakin-mina duzula edo asko dakizula. Ikertu nahi duzun gai bat aukeratzea izango duzu onena.

ETA EZ BAZAIZU EZER BURURATZEN? Bilatu ideiak egunkari batean, liburutegian, irakasleei eta lagunei galdetuz...

IDEIEN ZURRUNBILOA. Beste aukera bat: taldean bildu eta hamar minutuan burura etortzen zaizkizuen gaien zerrenda egin, bat bera ere bazter utzi gabe. Gero, zuen artean adostasuna bilatu eta gehien gustatzen zaizuen aukeratu.

EZARRI MUGAK ZURE GAIARI. Ez dadila orokorregia izan. Ezta konplikatuagia ere, edo hari buruz dokumentazioa aurkitzea zaila bada, edo urria bada.

EZ IBILI ZALANTZAN. Gaia aukeratu ondoren, ez pentsatu gehiago: lanean hasteko garaia da.

« Aurkitu diren gauzez denok gogobeterik sentituko bagina, ez litzateke inoiz ezer berririk asmatuko »



Seneka
(Ka 4 - Ko 65).
Latindar filosofoa.

Gogoan hartu ©

Aintzat hartu zeure ideiak eta abiapuntutzat hartzen saiatu.

Urratsa:

3

Plangintza

Antolatatu lana

Zer egin behar duzu?

Ikerketan egin beharreko urratsen plangintza.

Aholku batzuk

AURREA HARTU. Pentsa ezazu egin beharreko lanetan, urratsetan, eta sor daitezkeen arazoetan.

ONDO BANATU DENBORA. Urrats batzuk beste batzuk baino luzeagoak izango dira.

AZKEN ORDUKO ESTUASUNIK GABE. Ez utzi dena azkenerako. Ondo antolatuz gero, nahikoa denbora dago.

LAGUNTZA ESKATU. Plangintza on bat egiteko, ingurukoei laguntza eskatu: irakasleei, ikaskideei...

MALGUA IZAN. Ezin da dena aurreikusi. Ezustekoak gertatzeko aukera ere kontuan hartuko du zure planak: batzuetatik abantaila atera dezakezu.

NOIZEAN BEHIN, BERRIRO BEGIRATU. Tartean-tartean aztertu zure plana berriz, ezarritako helburuak eta epeak betetzen ari ote zaren ikusteko.

« Ordenaz eta denboraz baliatzean datza dena egiteko ez ezik ondo egiteko sekretua »»



Pitagoras
(Ka VI. mendea).
Greziar matematikaria.

Gogoan hartu ©

Plangintza egiterakoan, dokumentuen datuak nola jaso aurreikusi behar duzu, egile eskubideak errespetatzeko.

Urratsa:

4

Ideiak

Ordenatu zure ideiak diagrama batean

Zer egin behar duzu?

Diagrama bat, gaiak dakizuna eta ikertuko duzuna antolatu ahal izateko.

Aholku batzuk

GOGOETA EGIN GAIKAZ DAKIZUNAZ. Ezer gutxi bada ere, beti dakigu zerbait gaiei buruz.

ZER JAKIN NAHI DUZU? Une batez behintzat, galdetu zeure buruari zer ikertu nahi duzun aukeraturiko gaiaren inguruan.

IDATZI BURURA DATORKIZUN GUZTIA.

Hasieran, ez baztertu zure ideietako bat bera ere, beharbada gero baliagarriak izango zaizkizu.

GILTZA-HITZAK. Zure galderak aiseago erabiltzeko, labur itzazu hainbat giltza-hitzetan, eta gero giltza-hitz horietaz baliatu informazioa bilatzeko.

DIAGRAMA BAT. Ikertzen ari zaren gaiaren inguruan sortzen diren ideiak adierazteko balio du. Diagramaren erdian gai nagusia kokatu, eta handik (izar bat balitz bezala) irtenarazi adarrak edo gaiarekin zerikusia duten beste atal batzuk. Prozesu hau behar duzun guztietan errepika dezakezu.

« Mundua gidatzen dutenak eta herrestan daramatenak ez dira makinak, ideiak baizik »



Victor Hugo
(1802-1885).
Frantziar idazlea.

Gogoan hartu ©

Ez ahaztu zure ideiak, zeureak direnez, originalak direla berez.

Urratsa:

5

Iturriak

Non bilatu informazioa?

Zer egin behar duzu?

Ikerlanerako informazioa lortzeko modurik egokiena bilatu.

Aholku batzuk

ZER BEHAR DUT? Kontuan hartu ikerketan behar dituzun informazio era desberdinak: dokumentuak, irudiak, ikus-entzunezkoak, estatistikak...

NON DAGO? Aukeratu ondo non bilatu: liburutegiak, aldizkaritegiak, Internet, inkestak...

LIBURUTEGIAK. Zoaz institutuko edo auzoko liburutegira eta kontsultatu bertako katalogoak, edo liburuzainari galdetu bestela. Ez ahaztu badituzula giltza-hitz batzuk bilaketari ekiteko.

INTERNET. Interneten era guztietako informazioa dago, baina milioika eta milioika orri daude eta denak ez dira baliagarriak ez fidagarriak. Interneten ere giltza-hitzez balia zaitezke.

JAKIN-MINEZ JOKATU. Ez geratu topatzen duzun lehen gauzarekin. Autore eta jatorri desberdinetako iturriak kontsultatu.

« Liburu on bat da jakin-minez zabaltzen dena eta onuraz ixten dena »»



Louise M. Alcott
(1832-1888).
Estatubatuar idazlea

Gogoan hartu ©

Kopiatu,
fotokopiatu,
ebaki eta itsatsi,
baina egile
eskubideak
errespetatu beti.

Urratsa:

6

Dokumentuak

Zeintzuk izan daitezke interesgarriak?

Zer egin behar duzu?

Ikerketarako behar dituzun dokumentuak aukeratu.

Aholku batzuk

EZ KONFORMATU LEHEN GAUZAREKIN.

Askotariko informazioa bilatu eta dokumentu ugari alderatu. Aberastu zure iritzia beste ikuspuntu batzuekin.

PUNTU ABERATSAK. Dokumentuetan badira puntu batzuek edukiaz berehala jabetzen lagunduko dizutenak: izena, izenburuak, aurkibidea, laburpena, ondorioa...

BALIAGARRIA AL ZAIZU? Hauta itzazu dokumentu erabilgarriak (informazioa eguneraturik al dago?, ulertzen dut zer dioen?, egilea edo iturria fidagarriak al dira?...).

« Ez dago liburu guztiz txarra denik, beti baita zerbait ona ikas daitekeenik »



Kaio Plinio
(63-113 aldera).
Latindar idazlea.

Gogoan hartu ©

Kontsultatzen dituzun dokumentuen datuak idatzi, zure lanean aipatzeko.

Urratsa:

7

Informazioa

Hautatu garrantzia duena

Zer egin behar duzu?

Aukeratutako dokumentuetatik, behar duzun informazioa eskuratu.

Aholku batzuk

ZURE HASIERAKO GALDERAK. 4. urratsean («Ideiak») galdera batzuk egin zenizkion zeure buruari. Orain bilatu behar duzu erantzunak zein dokumentutan dauden.

OHARRAK HARTU. Interesgarria iruditzen zaizun datu bat aurkitzen duzun bakoitzean, fitxa batean jaso. Horrela ez duzu informazioa galduko eta ikerlanaren amaieran erabili ahal izango duzu.

ALDERATU. Bi testu edo gehiago gai berari buruz ari direnean, alderatu egin behar dituzu: zertan dira antzekoak, zertan desberdinak.

BEHAR DUZUN DENBORA HARTU. Patxadaz irakurri, testuaren esanahia ulertze aldera. Beharrezkoa balitz, berriro irakurri, eta, arazoak badituzu, kontsultatu hiztegiaren bat, dokumenturen bat, ulertzen ez duzuna argitzeko, edo, osterantzean, laguntza eskatu irakasleari.

« Irakurtzea elikatzea bezalakoa da; ateratzen den probetxua ez da jaten denarekin neurtzen, digeritzen denarekin baino »»



Jaime Balmes
(1810-1848).
Espainiar filosofoa.

Gogoan hartu ©

Egileak aipatu, beren lanen zatiak erreproduzitzen badituzu.

Urratsa:

8

Gidoia

Ganorazko gidoi bat egin

Zer egin behar duzu?

Orain arte bildutako informazioa islatuko duen gidoia egin.

Aholku batzuk

OSATU ZURE DIAGRAMA. Gogoratu 4. urratsean («Ideiak») diagrama bat egin zenuela? Orain, sartu hantxe bildutako informazioa.

AZTERRALDI BAT. Diagrama osatu ondoren, ikus dezakezu agian punturen bat gutxi landu duzula, edo informazio bila gehiago sakondu behar duzula...

GAUZA OROK ORDENA ESKATZEN DU. Gidoia zure txostenaren egitura izango da. Logikaren araberrako ordena izango du, non puntu batzuk nagusiak izango diren eta beste batzuk bigarren mailakoak.

BESTE BEGIRATU BAT. Behin betiko gidoia erabaki aurretik, azter ezazu behin eta berriz. Zenbat eta gehiago begiratu, orduan eta hobe eta pertsonalagoa izango da gidoia.


« Egin duzunaz ez zara inoiz ohartzen; oraindik egiteko duzuna baizik ez duzu ikusten »



Marie Curie
(1867-1934).
Jatorri poloniarreko zientzialari frantsesa.

Gogoan hartu ©

Zeure egin ikerlanean aurkitutakoak, eta ukitu pertsonala emaezu.



Urratsa:

9

Originala izan

Nola egin ez kopiatzeko eta ez plagiatzeko

Zer egin behar duzu?

Kontsultatu dituzun egileak eta iturriak behar bezala aipatu.

Aholku batzuk

AIPATU. Beste egile batzuen ideiak edo dokumentuak erabiltzen dituzun bakoitzean, haien aipamena egin behar duzu. Baina ez da komeni aipuak gehiegi erabiltzea ere.

PARAFRASEATU. Beste egile batzuek esan dituzten gauza berak esan ditzakezu zeure hitzak erabiliz.

EGILEA ERRESPETATU. Bai aipuen bai parafrasien kasuan garbi adierazi beti norena den jatorrizko testua eta non argitaratua den.

BIBLIOGRAFIA. Datu bat bera ahaztu ez dagizun, idatz ezazu dena, hautaturiko iturrietatik jaso zenituen fitxex baliatuz.

« Ezaguera gauza ona da, sormena are hobea »



Albert Einstein

(1879-1955).

Jatorri alemaneko fisikari estatubatuarra.

Gogoan hartu ©

Kontuan hartu kopiatzea, antzeratzea eta plagiatzea ez direla gauza bera.

Urratsa:

10

Txostena

Nola egin ikerketa-txosten on bat

Zer egin behar duzu?

Ikerketaren emaitzak egoki aurkeztu.

Aholku batzuk

ITXURAK BADU ZER ESANIK. Erabaki nola aurkeztu behar dituzun ikerlanaren emaitzak (txosten idatzia, ahozko azalpena, multimedia proiektua).

ZIRRIBORROAK. Lanaren azken bertasioaren aurretik, behar beste zirriborro egin eta pentsatu zure hartzaileek ulertuko ote duten.

ZURE LANA ILUSTRATU. Erabili argazkiak, grafikoak, mapak, bideoak... Informazio grafikoek ere beren egilea dutenez, haren aipamena ere egin beharko duzu.

ARGI INFORMATIKAREKIN! Lanean ordenagailua erabiltzen baduzu, segurtasun-kopiak egin beti, ezuste txarrak saihesteko.

ITXURA ZAINDU. Ahalegindu zure lanak akaberan itxura argia, txukuna eta ordenatua izan dezan.

HELARAZI ZURE INTERESA BESTEEI. Ahozko azalpen bat egin behar baduzu, ahalegindu entzuleei zure ideiekiko interesa pizten. Idatzi gidoia eta proba-saioak egin aurretiaz.

« Irakurtzea merezi duten gauzak idatzi nahi badituzu, sarri askotan ezabatu »



Horazio
(Ka 56-8).
Latindar poeta

Gogoan hartu ©

Sortzaile zaren aldetik, zuk ere zeure eskubideak dituzu.

Urratsa:



Interneten

Argitaratu zure **lana** esdelibro.es **web** orrian

Zer egin behar duzu?

Zure ikerlana **esdelibro.es** web orrian argitaratu.



« *Gizadiak eginiko, pentsaturiko, lorturiko guztiak eta gizadia izan den guztiak iraun egiten du, liburuen orrialdeetan miragarriro gorderik* »



Thomas Carlyle
(1795-1881).

Historialari eta pentsalari ingelesa.

Gogoan hartu ©

Argitaratu
zure lana eta
partekatu zure
ezagupenak
besteekin.

de libro-koa zara?

bat • sei

Irakurtzea atsegin baduzu ...

Jakitun bazara idazleek, editoreek, banatzaileek, saltzaileek, liburuzainek... beren lanak sortzeko edota zuri helarazteko egin behar izaten duten **ahaleginaz**...

bi • zazpi

Atsegin baduzu zure ideia propioak **sortzea** inorenak "kopiatu eta erantsi" gabe...

Zure lanetan erreferentzia gisa erabiltzen dituzun autoreak eta obrak **aipatzen** badituzu ...

hiru • zortzi

Liburuak, Internet eta era askotako dokumentuak erabiliz **ikertzeko** jakin-mina baduzu ...

Fotokopiak axolagabeki ez egiten saiatzen bazara eta behar dituzunean baimendutako lekuetan egiten badituzu...

lau • bederatzi

Irakurtzeko, informazioa bilatzeko, ikasteko, **liburutegia** erabiltzen baduzu...

Egunero tartetxo bat irakurtzen ematen baduzu...

bost • hamar

Liburu-dendetara joan eta liburuak gainbegiratzea gustuko baduzu...

Zure **liburutegi propioa** martxan baduzu eta lagunekin liburuak trukitzea gustatzen bazaizu...

de libro-koa zara!



EKIMEN HONEN BULTZATZAILEA:



ERAKUNDE HAUEN LAGUNTZAZ:



Dokumentu hau
Es de libro
heziketa-programaren
parte da: CEDROren ekimenez
hezkuntza komunitate
osoari zuzentzen zaion
programa berezia,
irakurketa, idazlanen
sorkuntza eta egile
eskubideekiko errespetua
sustatzeko.